

OSO GUNEKO ERAKASKERA
1998-99ko IKASURTEA

I ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA.

1. Goiz batez, zer egin zuen Piarresak .?
2. Zer aurkitu zuen? Uso xda norena zen .?
3. Dabit ihiztaria nun bihurtu? eta nola?

Pour l'année de l'automne 1998.

II

pour l'année de l'automne

Dabit Ihiztaria 1

Goiz batez, Oihanaldetik atera zen Piarres, etxeko zonbeit pottoka larrean ikusi beharrez.

Haize hegoak hazkarki emaiten zuen, gain hek guziak harrotzen zituela eta arintzen. Gibelerat ari, uso multzo batzu firurikan heldu ziren, haizeak alderdi guzietarat erainak.

Ixtilkan' barna, haitz eder batzuen aldetik bazoan beraz Piarres, er eskuin ongi behatuz non bere pottokak ikusiko zituen, noiz ere, lizardi-kaskorat heltzean, berak batere uste gabe, aurkitzen baita uso-xola bat buru buruan zakarken arbola luze baten aintzinean. Haitzari gora, zurubi² mehar mehar luzatuz bazoazin, eta han, arrano ohandze handi bat iduri, uso-xola gorri bat, Dabit ihiztariaren uso xola³. Ohantzetik kanpo bide zen xoria; xixturik ez zen bethi jautsi gain hartarik.

Haitzari hurbil, bixkar-paretari hiru aldetarik josia, errekatik besoz garreiatu harri handi batzuz aintzinetik hetsia, han zuen Piarresek Dabiten jauregia. Oihan-etxe hartan, bi hilabete luzez, Jaingoak egiten zituen urthe guziet, eta handik kasik mogitu ere gabe, bizi zen ihiztari zaharra, bakar bakarrik. Hiru lau egunetarik doi doia, gau-bethean, jausten zen herrirat, ogi zerbeit crosti beharrez; eta gero, ilhunbean, berriz oihanerat.

Horrela egunak oso osoa zituen ihiziarentzat; aski oraino errenkura baitzen, ilhargitara, gau argietan, ihizi hura, ixil ixila gain hartan, aintzina bazoala! Zer tiroen bazkak ez zitzaizkon suntsitzen, han, izar-arte ederrean!

Erregeak ez ahal ziren hala dohatsu beren jauregietan, nola Dabit l' oihan-etxean! Besotara bat hosto gozo ohetzat, bere philda⁴ zerbeit estalkitzat... Zer loriat! Eta zer ametsak estalki heien azpian! Munduko uso guziak garbitzen zituen lotarik; eta gero goxoki lo eginik, zankez atzarriko zen, lehenbiziko paparo-gorria ttiutaka berroan hasi zitzaioneko.

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31 Bazoan beraz 32 Zakarken
- 33 Ez zitzaizkon 34 Hasi zitzaioneko.

31 JOAN Indicatif. Conj. forte

<u>Présent</u>		<u>Imparfait</u>	
Ni noa = je vais	N. mendoan = j'allais	Hi hooa = tu vas	H. hindoan = tu allais
Zu zoatzi = vous allez	Z. zinoatzi = vs alliez	Hura doa = il va	H. zoan = il allait
Gu goatzi = nous allons	G. ginoatzi = ns allions	Zuk zoazte = vous allez	Z. zinoazten = vs alliez
Hek doatzi = ils vont	H. zoatzi = ils allaient		

32 - EKHARRI : supporter, porter, Potentiel.

Imparfait - Obj. Singulier

Nik mindekarhen = je pouvais le porter
Hek hindekarhen = tu pouvais le porter
Zuk zindekarhen = vous pouviez le porter
Harek zekarken = il pouvait le porter
Guk gindekarhen = nous pouvions le porter
Zuk zindekarheten = vous pouviez le porter
Heiek zekarhen = ils pouvaient le porter

33. IZAN. Régime Indirect. Indic. Imparfait

Hek ziren = PLURIEL = ils étaient

Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient

" zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient

" zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient

" zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient

" zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient

" zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

Gu ginen = PLURIEL = nous étions

Gu (nous) gintzaizkizun (à vous) = nous vous étions

" gintzaizkion (à lui) = nous lui étions

" gintzaizkizuen (à vous) = nous vous étions

" gintzaizkien (à eux) = nous leur étions

x x x